

Eusko Jaurlaritzaren gutunaren aurrean, greba da bidea



Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.
Hemen eta orain erabakita.

LAB, STEILAS, ELA, eta CCOO sindikatuok salatu nahi dugu EAEko Hezkuntza Sailak izandako jokabidea unibertsitatez kanpoko irakasleen sektorean deitu ditugun lau greba egunen aurrean. **Oso larria iruditzen zaigu Hezkuntza sailak irakasleen eta familien posta pertsonala erabili izana propaganda egiteko**, familiak irakasleon kontra jartzeko eta grebak baldintzatzeko.

Propagandatik harago, hezkuntza publikoko langileen lan-baldintzekin gertatzen ari dena Eusko Jaurlaritzak gure herriko hezkuntza publikoa indartzeko duen borondate eskasaren adibide garbia da. Hamabost urte luze dira jada gure lan-baldintzak arautzen dituen akordioa berritzen ez dela. **Eusko Jaurlaritzak ez du borondaterik** izan hamabost urte luze hauetan, gurekin, bere langile garenokin, lan-akordio arautzailerik sinatzeko. Erakunde publikoek eredu izan beharko luketen horretan, Hezkuntza Sailak hamabost urte luzeko atzerapena darama.

Bestetik, gutunean hizpide izan dute egungo negoziaketaren nondik norakoa. Argi dago **sindikatuok Hezkuntza Sailarekin negoziatzeko borondatea dugula**, inork ez du halakorik ukatu, eta horrela jakinarazi diegu langileei asanbladetan greben zergatia azaltzerakoan. Asanbladaz asanblada ari gara azaltzen negoziaketa nolakoa izaten ari den eta zergatik den beharrezkoa greba dinamika hau. Aurrerantzean ere, **langileekin ikastetxeetan bertan**, eta ez gutun elektronikoko bidez, gutunean Hezkuntza Sailak zerrendatutakoek non dituzten hutsune nabarmenak, konkrezio gabeziak eta abarrak **azaltzen jarraituko dugu**. Era berean, borrokan jarraituko dugu aipatu ere egin ez dituzten horien alde.

Ikastetxeetako batzarrez gain, **mahai negoziatzaileetara joaten jarraitzen dugu nahiz eta mahai horietan edukirik ez egon**. Hezkuntza Sailak agerian utzi du mahaiak eta bilerak langileekin negoziatzeko eta adostasunak lortzeko erabili beharrean, negoziaketa itxura emateko eta bere burua justifikatzeko tresna gisa erabiltzeko hautua egin duela.

Hezkuntza Sailak argi utzi digu ez duela dirurik inbertituko gure lan-baldintzak hobetzeko, eta ondorioz, hezkuntza publikoa indartzeko. Begi-bistakoa da, hortaz, borondate kontua dela, oraingoan ere. Ez dezagun ahaztu **lan-baldintzak eta hezkuntza kalitatea txanpon beraren bi aldeak direla**.

Honengatik guztiagatik, **irakasleei eta familiei eskatzen dizuegu ez diezaiozuen biderik eman Hezkuntza Sailak gutunaren bidez bere burua justifikatzeko ariketa nabarmen honi**. Familiek egunero-egunero ikusten duzue eskolako errealitatea eta ez dizute gutun bidez ezer azaldu orain arte. Zuek, familiek harreman zuzena duzue hezkuntza publikoaren errealitatearekin eta horregatik ziur gaude **greba hauen bidez elkarrekin borrokatuko dugula**. Irakasleok ere egunez egun jasaten dugu gure ikastetxeetako lanpostuetan Hezkuntza Sailak duen utzikeria. Ez digute gutun bidez ezer azaldu behar, gu ere benetako errealitateaz jakitun baikara.

Batasun sindikala lortu dugu greba hauen aurrean. LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuak batu egin gara, langileok askotan eskatu diguzuen moduan. Batu egin gara negoziaketak hutsalak direla denok ziurtatu dezakegulako. **Lau sindikatuok deia egiten dugu grebara aho batez, eta ziur gara kaleak beteko ditugula**.

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza